




Fedeafes
25 urte - 25 años

Buru gaixotasuna
duten pertsona
eta senide elkarteen
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas
con enfermedad mental

Estilo gidaliburua

Nola jorratu Buru Osasuna komunikabideetan





Hitzak gure ardura direlako

Komunikabideak oso beharrezkoak dira gure gizartean lortu beharreko erronka handietako bati aurre egiteko: buru gaixotasuna duten pertsonen irudi soziala eta jasotzen duten tratua hobetzea, gizarteratzeko aukera izan dezaten.

Fedeafes, 2012

Aurkibidea

1 	Hitzaurrea	4
2 	Buru osasunari buruzko ideia batzuk	5
3 	Pertsonak	6
4 	Uste okerrak eta errealitateak	7
5 	Gomendioak	8
6 	Datu batzuk	11
7 	Zer da Fedefes?	12
8 	Iturriak	15

1 Hitzaurrea

Komunikabideek errealitatearen ideia osatzen laguntzen digute. Komunikazio arloko profesionalen lanaren garrantziaz kontziente, honako gidaliburu hau landu dugu, Buru Osasunarekin loturiko gaiak egoki jorratzen laguntzeko helburuarekin. Horrela, **eduki orekatuagoak zabal** daitezzen eta **buru gaixotasuna duten pertsonen irudi objektiboagoa** hedatu dadin lagundu nahi dugu.

Hedabideek aurreiritziak eta estereotipoak transmititzen dituzten bitartean, jada indarrean daudenak sendotu egingo dira. Alabaina, **gizarteratzea errazten duten mezuak** zabaltzen badituzte, bizikidetzarako espazio berriak sortuko dituzte.

Mito faltsuak hesi ikusezinak dira. Buru gaixotasuna duten pertsonen sufriarazten diete eta sendatze prozesuan aurrera egiteko oztopo bilakatzen dira. Uste oker horiek gainditze aldera lanean jarraitzeko, buru gaixotasun larria duten pertsonen **gertuko ikuspegia** eskaini nahi dugu ondorengo orrialdeetan, eta **informazio ez diskriminatzailea osatzeko aholkuak** proposatuko ditugu.

Eskuliburu honen bitartez, gure konpromisoa berretsi nahi dugu: buru gaixotasunaren inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea, informatzea eta orientatzea.

Ildo horretatik, gogoratu behar dugu 2006ko abenduan egindako **Minusbalotasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Batzarra**. Bertan, Estatuak gizartea sentsibilizatzeko eta estereotipo eta aurreiritziak deuseztatzeko konpromisoa hartu zuten, 8. artikulua jasotzen duen moduan. Biltzarrean adostutako neurri baten arabera, komunikabideetako organoei animatuko zaie minusbalotasuna duten pertsonen egiazko irudia zabaltzera, konbentzioaren helburuarekin bat eginez.



Mito faltsuak hesi ikusezinak dira. Buru gaixotasuna duten pertsonen sufriarazten diete eta sendatze prozesuan aurrera egiteko oztopo bilakatzen dira.

2 || Buru osasunari buruzko ideia batzuk

Buru osasunaren definizioa

Buru osasuna **ongizate egoera** da. Banakoa bere gaitasunez kontziente da, bizitzako ohiko **tentsioak gainditzeko gai** da, **lanean emankorra** da eta bere komunitatean laguntzeko ahalmena dauka.

Buru gaixotasunaren definizioa

Buru gaixotasunaren eta osasunaren arteko muga ez da garbia, baina honela definienezake gaixotasun mentala: **Emozioaren, kognizioaren edo/eta jokabidearen asaldura**, oinarritzko prozesu psikologikoetan eragina duena: emozioa, motibazioa, kognizioa, kontzientzia, jarrera, pertzepzioa, ikaskuntza eta lengoia. Horren ondorioz, banakoak kultur eta gizarte ingurunera egokitze zailtasunak dauzka eta ondoez subjektiboa pairatzen du.

Gaixotasun mota hauek daude:

- » Gogo-aldartearen nahasmenduak (nahasmendu bipolarra, depresio nagusia)
- » Nahasmendu psikotikoak (eskizofrenia)
- » Antsietate-nahasmenduak
- » Nortasun-nahasmenduak
- » Loaren nahastea
- » Elikadura-jokabidearen nahastea

Buruko gaixotasunen **kausak anitzak** dira eta, askotan, **ezezagunak**. Burmuineko kimikan edota bestelako mekanismo biologikoetan gertatzen diren asaldurek, aurrejoera genetikoek, ingurumen, kultur eta gizarte faktoreek, garunean gertatutako kalteek edota substantzia toxikoen kontsumoak eragin dezakete gaixotasuna sortzea eta garatzea. Baina ezin dugu zehaztasunez ezagutu zenbateraino eragiten duten faktore horiek, ez eta zein konbinazio ematen den kasu bakoitzean. Edonork paira dezake buru gaixotasunen bat. Zehazki, lau pertsonatik batek buruko nahasmenduren bat sufritzen du bizitzan zehar.



Lau pertsonatik batek buru nahasmenduren bat sufriruko du bizitzan zehar.

3 | Pertsonak

Fedeafesek komunikabideei laguntza eskaini nahi die, gure kolektiboaren **irudi zuzenagoa, objektiboagoa eta errespetuan oinarritutakoa** zabal dezaten; eta estigma elikatzen jarrai ez dezagun.

Buru gaixotasuna duten pertsonekin zuzeneko harremana edukitzea da eurak ezagutzeko eta beren bizitzari buruzko informazio argia eta egiazkoa lortzeko modu onena. Pertsona hauei naturaltasunez gerturatzea komeni da, beste gaixotasunen aurrean egiten dugun moduan, aurreiritziak eta ideia okerrak baztertuz.

Pertsona hauekin kontaktuan jartzeko ideia batzuk:

- a) **Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarrekin elkarlanean aritzea** gomendatzen dugu. Aurretiko informazioa eta orientazioa eskaini ez ezik, pertsona egokia topatzen lagunduko dute, eta elkarrizketatua erosoago senti dadin erraztuko dute.
- b) **Barne-barneko esperientziei, hau da, krisiei, sintomei, jasandako sufrimenduari... buruzko galderak kontu handiarekin egin behar dira**, askotan oso egoera mingarriak gogora ekartzen baitituzte. Beraz, elkarreetako profesional eta arduradunen orientabidea oso gomendagarria da elkarrizketak bideratzeko garaian.
- c) Garrantzitsua da **aintzat hartzea ororen gainera pertsonak direla**. Kasu honetan, gaixotasun batekin. Euren ametsak, beharrak, beldurrak... beste edonorenak bezalakoak dira. Interesgarria da **bizi proiektuengatik, afektibotasunagatik, lanarengatik, bikotearengatik... galdetzea**.



Ororen gainera, pertsonak dira.
Euren amets, behar, beldurrak...
beste edozeinenak bezalakoak dira.

4 Uste okerrak eta errealitateak

Uste okerra

Errealitatea

- | | |
|--|---|
| 1 Buru gaixotasuna duten pertsonak erasokorrak eta arriskutsuak dira, eta ezin da aurretik jakin nola jokatuko duten. | Buruko gaixotasuna duten pertsonak ez dira gainontzekoak baino arriskutsuagoak. Buru gaixotasuna duten pertsonen %3k soilik gauzatzen ditu indarkeriazko ekintza, tratamendu egokia ez daukanean. |
| 2 Buru gaixotasuna oso kasu gutxitan sortzen da. | Alderantziz, gaixotasun mentalak unibertsalak dira eta patologia guztien %12,5 dira, kantzerra edo nahaste kardiobaskularrak baino gehiago. Lehenengo 10 minusbaliotasun kausen arteko bost buru osasun arazozen ondorio dira. OMEren ikerketen arabera, lau pertsonatik batek buruko nahasmenduren bat sufrituko du bizitzan zehar. |
| 3 Buru gaixotasuna duten pertsonak ezin dute euren burua zaindu. | Buru gaixotasuna duten pertsonak euren burua zaindu eta bizitza normalizatua eraman dezakete, tratamendu mediku eta babes psikosozial egokiarekin. |
| 4 Buru gaixotasuna duten pertsonak ezin dute gainerako pertsonekin bizi. | Buru gaixotasuna duten pertsonen %88 euren familiekin bizi dira. Nahasmendu horiek ez dute zertan bizitza normalizatua oztopatu, eta pertsonaren ohiko ingurunean tratatu behar dira. |
| 5 Buru gaixotasuna ezin da sendatu. | Buru gaixotasuna gaindi daiteke. Egun, tratamendu eraginkorrak eta hobetzeko aurreikuspen dezente daude. Buru gaixotasun larria duten pertsona gehienak orekatu daitezke. |
| 6 Buru gaixotasuna duten pertsonak ezin dute bizitza normalizatua eraman. | Buru gaixotasuna duten pertsonak gainontzeko pertsonak bezala bizi, bikotea eduki, ezkondu, haurrak izan edo lan egin dezakete. Harreman afektibo garrantzitsuak edukitzeak mesede handia egiten die. Dударik gabe, lanean garatzeko gaitasuna daukate beste edozein pertsonak bezala; beti ere, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz. |

5 Gomendioak

Buru gaixotasuna duten pertsonak pairatzen duten diskriminazioa deuseztatzen laguntzeko ahalmen handia dute komunikabideek, informazio objektiboa, zehatza eta estigmaren aurkakoa hedatuz. Ez dugu informazioa aldatzerik, isilean gordetzerik edo apaintzerik nahi: albisteen formari eta lengoaiari erreparatzen diogu, horrek pertsonen irudi sozialean eragin handia baitauka.

Ekidin

1 Buru gaixotasuna jokabide arriskutsu eta delituzkoekin lotzea saihestu, uste okerrak elikatu eta kolektiboari kalte egiten baitio.

Indarkeriazko ekintzak gertatzen direnean, gertakari horiek buru gaixotasunarekin lotzeko arriskua dago, aurreiritzien eraginez. Gainera, zirrara handia sortzen duten ekintzetan, “azaldu ezin diren” jokabideak automatikoki gaixotasun mentalari egozteko joera dago. Eta buru gaixotasuna ezin dugu gaiztakeria bidegabe edo neurrigabeekin alderatu.

2 Zehatzak ez diren edo iraingarriak diren terminoak ekidin.

Zenbaitetan, hedabideetan eskizofrenia duten pertsonak “eskizofreniko”, “ero”, “zoro”, “demente” edo “burutik egindako pertsona” bezala kalifikatzen dira. Horren ordez, “buru gaixotasuna duen pertsona” edo “buru osasun arazoa duen pertsona” esatea gomendatzen dugu. Zentroei dagokienez, “giltzapetzea” bezalako zaharkitutako terminoak erabili beharrean, “ospitalean/zentroan sartzea” esatea egokiagoa da. Bestalde, “eroetxe” edo “zoroetxe” ez dira jada erabiltzen. Hobe da egungo egituren izen zuzenak hautatzea: “eguneko zentroak”, “osasun mentaleko zentroak” edo “zaintzapeko etxebizitzak”.

Aretxabaletan anaia hil zuen eskizofrenikoa absolbitu dute
ERREDAKZIOA 2011/06/04
Segurtasun neurri moduan, 15 urtetan zentro psikiatriko batean sartzeko agindua eman dute. Gainera, 160.000 euroko kalteordaina ezarri diote.

ALBISTEAK (1)
Gizon batek anaia hil du Aretxabaletan

Augusto Maesok zuzendutako Zinpekoen Epaimahaiak eskizofreniko bat absolbitu du anaia hiltzeagatik. Akusatua Gipuzkoako Probintzia Auzbegan epaitu dute hilketari delitua egotzita analari bizkarrean lau astokada eemateagatik Aretxabaletan, 2009ko urriaren 23an. Segurtasun neurri moduan, zentro psikiatriko batean gehienez 15 urte egoteko agindua eman dute.

GAIXO
Gaixo mental batek lepoa moztu dio bere haur jaioberriari
ERREDAKZIOA 2009/11/10
Jaioberriaren ama patologia psikiatrikoaren bat omen du, Poliziaren arabera.

Polizia Nazionalak agenteek patologia psikiatriko bat duen 43 urteko emakume bat absolbitu dute Fuenlabradan (Madril), haur jaioberria hil izana egotzita, Poliziaren Buruzagitz Nagusiak jakitera eman duenez. Gertakizunak 00:30ean jazo dira, Madrildo Polizia Judizialeko agenteek dei egin dute, Fuenlabradako San Joaquin kaleko etxebizitzan batean emakume batek haurra izan duela jakinarazteko.

Bertara itziltzean, agenteek jaioberri baten gorputz aurkitu dute garbiontz baten barruan, lepoa moztuta zuten.

Abolbitua ospitalera eraman dute, mediku-azterketa egitera. Polizia Nazionalak ikertuta bat ireki du gertatutakoa argitzeko.

Ekin

3 Alderdi negatiboak edo sentsazionalistak fundamentuzko arrazoirik gabe azpimarratzen dituzten titularrak ekin.

Buru osasun arazoa informazioa ulertzeko ezinbestekoa denean soilik aipatzea aholkatzen dugu; eta inola ere ez morboa edota larritasun soziala sortzeko asmoarekin.

4 Irudi negatiboak, normalizazioari kalte egiten diotenak edo beste minusbaliotasun batzuei dagozkienak sahiestu.

Informazioa osatzeko edukiarekin bat datozen irudiak erabiltzea gomendatzen dugu, sentsazionalismoari uko eginez. Buru gaixotasuna ikusezina da, eta baliabide gisa beste gaixotasun batzuk erakusten dituzten argazkiak erabiltzeak errealitatea desitxuratzea dakar. Zenbait kasutan, komunikabideek gaixotasun mentala islatzeko erabiltzen dituzten artxiboko irudiak beti berberak dira, eta estigma elikatzen dute. Ikuspegi baikorra eskaintzen duten irudiak erabiltzea gomendatzen dugu.

5 Buru osasunarekin loturiko terminoak testuingurutik kanpo erabiltzea ekin.

Osasunaren testuingurutik kanpo, “eskizofreniko”, “depresibo”, “paranoiko” edo “psikotiko” bezalako hitzak erabiltzen dira zenbaitzutan, egoera jakin batzuk deskribatzeko; askotan kutsu negatiboarekin, gainera. Termino horiek kirol, kultur edo politika sailetan aurki daitezke, dualtasun edo kontraesanen bati erreferentzia eginez. Baina hitz horiek estigma indartzen dute, irain gisa ere erabiltzen baitira.

Turkiar nazionalismo eskizofrenikoa

Nahaspilatua dabil egoera Turria aldean azken denboraldi honetan. 1984tik, PKK alderdiak ipar Kurdistango kurdien eskubideen alde borroka armatuari ekin zionetik, etengabea izan da estatuak talde horren aurka izan duen gerratea. Urte hauetan guzbetan gerratean gorabehera handiak egon dira, eta azken asteetan suspertu da.

1922. urteetik, Mustafa Kemal (Ataturk) gaur egungo errepublika laiko turkiarra fundatu zuenetik, kurduak eta bera bezalako taldeen eskubideak aldarrikatzea, bai publikoki bai pribatuki, delitu larria da. Errepublikan inperio otomandarraren errautsetatik eraki zuten, oso egoera zail eta berezian, eta aurreko egoerarekin era erradikal batean moztu eta apurtu egin zuten. Lehen aldiz, musulmana zen estatu batek estatus bera laikotzat definitu zuen bere burua. Inperioa ordu arte ez baitzen turkiar autodefinitzen, musulman bezik, suni hain zuten: munduko musulman ortodoxoen burua zen, eta Indiako mogolekin nagusitasun horregatik lehiari ibili zen mendeetan. Horrek inperioaren historian zehar garrantzi handia izan zuten instituzio erlijiosoen itoiera ekarri zuen: madras gehienak ibi egin ziren, tarika sufia debekatu eta abar... (Dena den, Islam sunia errepublikari kutsu erlijiosoa emateko aukeratu zuten ordura arte)

Nicholson ero beldurgarria hotel bakartu batean

Beldurrezko generoan klasiko paregabea da *The Shining*, Stanley Kubrick zinemagilearen (*Paths of Glory*, *A Clockwork Orange*) lanik ezagunenetakoa. Eskizofreniaren aurpegi beldurgarria aurkezten zaigu; Jack Nicholsonen aurpegia, hain zuten. Zinez Nicholsonek ikuslea estutzea lortzen duela. Estatusuna sortzen du, aldi berean, mendi artean bakartutako hotel bakartiak. Protagonistaren semea triziko toki batean korridore luzeetan doa. Eta, bat-batean, hilda dauden bi neska esango diote: «Etorri gurekin jolastera!».

Kultuzko filma bilakatu da denborarekin *The Shining*. Esan beharra dago Stephen King eleberririk bazuela suspensea, baina beste zuzendari baten eskuetan oharkabean pasatuko zela ziurrenik. Kubrickek, berriz, giro eta atmosfera itogarria sortzea lortzen du hotelean. Irudiak ez dira nolanaikoa. Eta ederki planifikatutako gidoiak oso ondo funtzionatzen du.

Sustatu

- 1** Gizartean buru osasunaren ezagutza bultzatu. Buru osasunarekin loturiko informazioa transmititu aurretik, egoki dokumentatzea eta informatzea, beste edozein esparrutan bezala (politika, ekonomia, etab.).
- 2** Ikuspegi baikorra erakutsi. Buru gaixotasuna duen pertsonaren ezaugarri baikorrak erakustea, alderdi negatiboak zein positiboak artifizialki nabarmendu gabe. Lorpen arruntak azpimarratzea.
- 3** Normalizazioari mesede egiten dion informazioa eskaini. Buru gaixotasuna naturaltasunez azaltzea, diabete, traumatismo edo bestelako minusbaliotasun fisiko batekin egiten den moduan.
- 4** Erruki gutxiago, baliabide gehiago. Gaixotasun mentala duten pertsonak gainontzekoek bezalako eskubideak dituzte. Beraz, eskubide horiek erabiltzeko baliabideak behar dituzte, eta ez euren gaixotasuna modu dramatiko edo sentsazionalista batean azaltzea.
- 5** Protagonistei hitz egiten utzi. Buruko gaixotasuna duten pertsonak komunikabideengana gerturatzeko aukera izan behar dute, bitartekorik eta manipulaziorik gabe.
- 6** Gertakarien kronika gutxiago. Indarkeriaren eta buru gaixotasunaren arteko lotura faltsua hautsi behar dugu. Jarrera erasokor bat ezin da soilik buru gaixotasun batekin justifikatu.



Buru gaixotasuna duten pertsonak ez dute errukirik behar, **pertsona orori dagozkion eskubideak osoki erabili ahal izateko baliabideak aldarrikatzeko laguntza** baizik.

6 | Datu batzuk

- » Munduko **biztanleriaren %1k eskizofrenia** motaren bat garatuko du bizitzan zehar.
- » Eskizofreniarekin eta beste psikosi batzuekin diagnostikatutako pertsonen **%3 baino gutxiagok** gauzatzen ditu **indarkeriazko ekintzak**.
- » Espainiako biztanleen **%83k ez daki zer den eskizofrenia**.
- » Biztaleen **%56k buru gaixotasuna adimen urritasunarekin nahasten du**.
- » Buru gaixotasuna duten pertsonen **%47 publikoki iraindu** dute, eta **%83k** uste du **estigma** eta gizarte diskriminazioa **sendatze prozesuan aurrera egiteko oztopo** nagusietakoak direla.
- » **Estigmak** eragin handia du gaixotasuna duen pertsonarengan, egitzat hartzen baititu uste oker asko. Horrek pertsonaren **autoestimuari kalte** egiten dio, isolamendua bultzatzen du eta laguntza eskatzeko zaitasun gehiago izaten ditu banakoak.
- » Buru gaixotasun kronikoa duten pertsonen **%14k dauka bikote egonkorra** eta **%18k lagunik ez duela** dio.
- » Familiek beregain hartzen dute buru gaixotasuna duten pertsonak zaintzearen ardura gehiena. **Arreta zerbitzuen %88 zaintzaile informalek** eskaintzen dute.
- » Gehienbat, enpleguaren arloan nabaritzen da estigma: buru gaixotasuna duten pertsonen **%5k dauka lanpostu egonkorra**, eta **%44k** lanean diskriminatua izan dela baieztatzen du.

7 | Zer da Fedeafes?

FEDEAFES buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarteen Euskadiko federazioa da. Erakundea 1987an eratu zen eta, geroztik, kolektiboaren ordezkari gisa jardun du Euskal Autonomia Erkidegoan. 1998. urtean Erabilgarritasun Publikoa aitortu zioten.

Egun, EAEko 3.000 familia eta 9.000 pertsona baino gehiago biltzen ditu. Gure entitatearen barne daude ASAFES (Araba), AVIFES (Bizkaia), ASASAM (Nerbioigoiena) eta AGIFES (Gipuzkoa).

Misioa

Fedeafesen helburuak dira:

- » **Ikerketa**, elkartrukea, ikaskuntza eta **berrikuntza** sustatzea buru gaixotasuna duten pertsonen eta familien **bizi kalitatea hobetzea** bilatzen duten ekimenetan.
- » **Bizi Kalitate Ereduaren** baitan dauden politikak eta esperientziak sustatu eta zabaltzea.
- » Gaixotasun mentala duten pertsonen eta horien senideen **duintasuna eta eskubideak defendatu** eta aldarrikatzea.
- » Gizartea **sentsibilizatzea**.
- » **Foroetan** eta sareetan parte hartzea.
- » Buruko gaixotasuna duten pertsonen eta senideen aldeko **politika publikoak** exijitzea.

Fedeafesen lana teorikoki Bizi Kalitate Ereduaren baitan kokatua dago, eta pertsonaren autonomia eta gaitasunak bultzatzearen aldeko apustua egiten du.

Baloreak eta printzipioak

Fedeafesen eta bere barne lan egiten duten pertsonen jokaera, elkarren arteko harremana eta hartzailerekin zein gizartearekin daukaten harremana bideratzen duten balore eta printzipioak honakoak dira: **zuzentasuna**, **jokabide etikoa**, buru gaixotasuna duten pertsonetikiko eta senideetikiko zerbitzua, **elkartasuna**, **berdintasunezko ordezkartza**, **berrikuntza** eta **gardentasuna**.



25 urte baino gehiago lanean, **3.000 familia** eta **9.000 pertsona** ordezkatur.

Fedeafes mugimenduaren barne dauden elkarteak buru gaixotasuna duten pertsonentzako eta senideentzako aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzen dituzte. Herritarrek parte hartzeko espazioak dituzte eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen dituzte:

- » **Harrera eta orientazio** zerbitzua
- » **Etxez etxeko arreta**
- » **Familia esku-hartzea**
- » Eguneko **zentroak** eta **errehabilitazio psikosozialerako** programak
- » Zaintzapeko **etxebizitzak**
- » **Laneratze** programak
- » **Aisialdi** programak
- » **Aholkularitza juridikoa**
- » ...

Informazio gehiago



FEDEAFES

Tres cruces kalea, 14
01400 Laudio - Araba
Telefonoa: 94 406 94 30
E-maila: fedeafes@fedeafes.org
Webgunea: www.fedeafes.org



ASAFES

Amadís 2. (Sarrera, Blas de Oteron)
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Telefonoa: 945 28 86 48
E-maila: asafes@asafes.org
Webgunea: www.asafes.org



AVIFES

Santutxu, 40
48004-Bilbao (Bizkaia)
Telefonoa: 94 4456256
E-maila: info@avifes.org
Webgunea: www.avifes.org



AGIFES

Morlans pasealekua, 3 behea
20009-Donostia (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 474337
E-maila: agifés@agifés.org
Webgunea: www.agifés.org



ASASAM

Tres cruces 5 behea
01400 Laudio (Araba)
Telefonoa: 94 4034690
E-maila: info@asasam.org
Webgunea: www.asasam.org

8 Iturriak

- » **Guía de Estilo: Salud Mental y Medios de Comunicación**, bigarren argitaraldia.
FEAFES
- » **Las personas con enfermedad mental grave y los medios de comunicación.**
ANDALUZIAKO JUNTA
- » **Cómo informar sobre colectivos en riesgo de exclusión.**
EAPN, EAPN-GALICIA, AGARESO eta Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa
- » **Guía de estilo: Hacia una Salud Mental Positiva.**
EXTRAMADURAKO JUNTA
- » **Plan Estratégico de Castilla-La Mancha contra el estigma y la discriminación asociados a las enfermedades mentales.**
GAZTELA-MANTXAKO JUNTA



Fedeafes
25 urte - 25 años

Buru gaixotasuna
duten pertsona
eta senide elkarteen
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas
con enfermedad mental

Argitalpen hau finantzatu du:

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES